

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Sailsa**

1548/2020 FORU AGINDUA, uztailaren 20koa, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuarena, zeinaz aldatzen baita 975/2020 Foru Agindua, apirilaren 16koa, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuarena, zeinaz ebazten baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 10eko 185/2019 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak, zein dekretuaren bidez onartzen baitira 2020ko ekitaldirako "Ertibil-Bizkaia" Ikus-artearen Erakusketa Ibiltarirako oinarri arautzaileak eta deialdia.

2019ko abenduaren 18an argitaratu zen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 10eko 185/2019 Foru Dekretua, zeinaren bidez 2020ko ekitaldirako oinarri arautzaileak eta deialdia onartu baitziren «Ertibil-Bizkaia» Ikus-artearen Erakusketa Ibiltarirako.

Aipatu Foru Dekretuaren 5. oinarriak dio:

1. Eskabideak aurkeztu ahalko dira honako bi era hauetako baten arabera:
 - a) Dokumentazioa, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>); lana, aurrez aurre, Basauriko Elkartegian (Cervantes etorbidea 49, 33. modulua).
 - b) Aurrez aurre, Basauriko Elkartegian (Cervantes etorbidea 49, 33. modulua) aurkeztuko dira bai dokumentazioa eta bai lana. Eskabideak aurkeztu behar dira eredu ofizialean, zeina I-ER2 inprimaki gisa eranstean baita eta web honetan eskura baitaiteke: <http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak>
2. Hona eskabideak aurkezteko epea:
 - a) Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkezten direnak:
 - 1) Dokumentazioa: 2020ko urtarrilaren 30etik otsailaren 7ra (biak barne).
 - 2) Lana: 2020ko otsailaren 6an eta 7an, 10:00 eta 13:30 bitartean, Basauriko Elkartegian (Cervantes etorbidea 49, 33. modulua).
 - b) Aurrez aurre aurkezten direnak Basauriko Elkartegian (Cervantes etorbidea 49, 33. modulua), dokumentazioa eta lana, 2020ko otsailaren 6an eta 7an, 10:00 eta 13:30 bitartean.
3. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahalko ditu ikus-artearen modalitateetako edozeinetan. Lanok markoa edo listoia behar bezala jarrita aurkeztu beharko dira, salbu eta paretan ezarri behar ez direnak jendearen ikusgai egoteko.

2020ko otsailaren 7an, Raquel Asensi Blanco andreak bi lan aurkeztu zituen aurrez aurre Basauriko Elkartegian (Cervantes etorbidea 49, 33. modulua). Lanotako bat, «Data» izeneko, 123. zenbakiarekin erregistratu zen; bestea, «Sacculus Plasticus» izeneko, 124. zenbakiarekin.

Halere, epaimahaiari balora zitzan aurkeztean, alderantzikatu egin ziren lanok identifikatzen zitezkeen erregistro-zenbakiak, halako moduan non epaimahaiak 123. lanari («Data») eman zion balorazioa 124. lanari («Sacculus Plasticus») zegokion, eta alderantziz.

Hala, 123. lanak 21 puntu jaso zituen, eta 124. obrak, berriz, 18 puntu.

Aurkeztutako lan guztiak baloratu zituen Epaimahai kalifikatzaileak, zeina izendatu baitzen Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuaren otsailaren 5eko 363/2020 Foru Aginduan xedatutakoari jarraituz (otsailaren 13ko «Bizkaiko Aldizkari Ofiziala», 30. zenbakia), eta ondoren, hark ebazpen-proposamena igorri zion Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuari berari, hura azter zezan, 2020ko otsailaren 24ko aktan jasota dagoenez.

9. oinarria betetzeko, eta Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuaren apirilaren 16ko 975/2020 Foru Aginduaren bidez, 3 sari berezi banatu ziren, bai eta beste 15 lan



aukeratu eta 2.000 euroekin saritu ere, zeinen artean baitzegoen epaimahaiak baloratzeke 123. zenbakiarekin oker identifikatutako lana, «Data» izeneko, nahiz eta, egiatan, 124.a izan zen, «Sacculus Plasticus» deritzona, saria merezi izateko nahikoa puntuazio lortu zuen obra.

Kultur Ekintzako Zerbitzua, deialdiaren kudeatzailea bera, behin foru-agindua argitaratu ohartu zen akatsaz, eta era egokian jakinarazi zion Raquel Asensi Blanco andreari.

Bidezkoa da, beraz, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuaren apirilaren 16ko Foru Agindua aldatzea, zeinaren bidez ebazten baitira deialdira aurkeztutako eskabi-deak, bi lanak zuzen identifikatuz.

Horrenbestez, azaldutakoaren bertutez, eta kontuan harturik zertzuk eskumen ematen dizkidaten otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzkoak, 39.i) eta 67.1 artikuluetan, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak, zeinaren bidez onartzen baita Euskara eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua, bai eta bat datozen gainerako xedapenek ere, Foru Agindu honen bidez,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa: II. eranskina alda bekio Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuaren apirilaren 16ko 975/2020 Foru Aginduari. Hala,

— Dionean:

NAN / DNI	Eskatzailea / Solicitante	Proiektua / Proyecto	Puntuak Puntuación			Puntuak guztira Total puntos	Emandako kopurua Importe concedido (€)
			KE CE	KB CI	GF RF		
***8396**	Asensi Blanco, Raquel	Obra n.º 123: «Data»	7	7	7	21	2.000

— Behar du:

NAN / DNI	Eskatzailea / Solicitante	Proiektua / Proyecto	Puntuak Puntuación			Puntuak guztira Total puntos	Emandako kopurua Importe concedido (€)
			KE CE	KB CI	GF RF		
***8396**	Asensi Blanco, Raquel	Obra n.º 124: «Sacculus Plasticus»	7	7	7	21	2.000

Bigarrena: III. eranskina alda bekio Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuaren apirilaren 16ko 975/2020 Foru Aginduari. Hala,

— Dionean:

NAN / DNI	Eskatzailea / Solicitante	Proiektua / Proyecto	Puntuak Puntuación			Puntuak guztira Total puntos	Arrazoa Motivo
			KE CE	KB CI	GF RF		
***8396**	Asensi Blanco, Raquel	Obra n.º 124: «Sacculus Plasticus»	6	6	6	18	*A

— Behar du:

NAN / DNI	Eskatzailea / Solicitante	Proiektua / Proyecto	Puntuak Puntuación			Puntuak guztira Total puntos	Arrazoa Motivo
			KE CE	KB CI	GF RF		
***8396**	Asensi Blanco, Raquel	Obra n.º 123: «Data»	6	6	6	18	*A



Hirugarrena: Foru Agindu hau jakinaraz bekio Raquel Asensi Blanco andreaki, eta haren berri eman Kultur Ekintzako Zerbitzuari.

Laugarrena: Agintzen da Foru Agindu hau argitara dadila «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean». Bilbon, 2020ko uztailaren 20an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA